

43.  
**LIZARDI  
SARIA**



LIZARDI SARIA

## 1. SARIA

Zarauzko Udalak, **43. Lizardi Saria** antolatzen du, euskarazko haur literatura sustatzeko.

## 2. BALDINTZAK

Sariketan parte hartzeko, ondorengo baldintzak beteko dituzte literatur obrek:

- **Haurrentzako** ipuina izatea, 7-12 urte arteko irakurleentzat.
- Luzera: **22.000-34.000** karaktere bitartekoa.
- Jatorriz **euskaraz** idatzia.
- Obrak **originalak**, argitaragabeak eta beste lehiaketetan saritu gabeak izango dira.

## 3. AURKEZPENA

Lana **DIN A4 neurriko orrietan** aurkeztuko da, **lerroen artean tarte bikoitza** utzita eta letra mota Times New Roman 12 izango da.

### Posta bidez:

Obra bakoitzaren **ale bat** bidali, **orriak zenbakituta**.

Lanak **izengoitiz** sinatuko dira. Aparteko gutun-azal itxi baten barruan adieraziko dira: izengoitia, izen-abizenak, helbidea, eposta eta telefonoa.

Ziurtatutako gutuna **helbide honetara** helarazi:

Lizardi Saria  
Zarauzko Udala - Kultura Departamentua  
Sanz-Enea Kultur Etxea  
Nafarroa Kalea 22 - 20800 Zarautz

### Posta elektronikoz:

[kultura@zarautz.eus](mailto:kultura@zarautz.eus) helbidera **bi pdf artxibo** bidali, era honetara:

- **Ipuina:** obraren izenburua eta parentesi artean egilearen izengoitia. Adibidez: *Itsasoaz beste aldean (Izarloka).pdf*
- **Izenemate orria osatu eta sinatuta;** pdf dokumentuaren izena egilearen izengoitia izango da, adibidez: *Izarloka.pdf*

## 4. EPEAK

Lana **aurkezteko epea 2024ko uztailaren 14an** bukatuko da. Behin aurkeztuz gero, parte-hartzaileak ezingo dio lehiaketari uko egin.

**Epaia 2024ko irailaren 27an** jakinaraziko da.

**Ordainketa 2024eko abenduaren 23a** baino lehen egingo da.

**Sari-ematea 2025eko apirilaren 2an** izango da.

## 5. EPAIMAHAIA

Hiru lagunek osatuko dute epaimahaia. 43. edizioko epaimahaian egongo dira: **Yolanda Arrieta, Nerea Loiola eta Amaia Serrano**, edo horien ordezkakoak. Zarauzko Udalak idazkari bat izendatuko du, epaileen arteko batzarra deitzeko, erabakia jasotzeko eta irabazleari jakinarazteko.

## 6. EPAIA

**Zarauzko Udalak 5.500 euro** ezarri ditu irabazlearentzat. Saria P.F.E.Z. zergaren atxikipenez salbuetsita dago.

Epaimahaiaren erabakia atzeraezina izango da. Aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez balute, saria eman gabe geratuko da.

## 7. ARGITALPENA ETA SARI EMATEA

Idazlearenak dira obraren gaineko eskubideak.

Idazlearen, ilustratzailearen eta argitaletxearen artean argitalpen kontratua sinatu bezain laster, **Zarauzko Udalak 1.000 euroz lagunduko du ilustratzailea**, liburuaren bikaintasuna sustatzeko. Ilustratzaileari faktura bidez ordainduko zaio.

2024ko irabazlearen **liburua 2025eko apirilaren 2an aurkeztuko da Zarautzen**, Sari Ematearen egunean.

## 8. SARITU GABEKO LANAK

Zarauzko Udalak konfidentzialtasun osoz gordeko ditu idazlan guztiak. Epaia ezagutzera eman ostean, deuseztatu egingo ditu saritu gabeko obrak eta hauekin batera iritsitako gutun-azalak.

## 9. LEGE BARRUTIA

Arautegi honetan jasotzen ez den gorabeherarik sortzen bada, sariketara aurkeztu diren idazleek auzi guztiekiko erabakia erakunde antolatzailearen esku utziko dute.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.



LIZARDI SARIA



ZARAUZKO UDALA